

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 9/2023

(...) SAILEKO (...) ZUZENDARITZAREN TITULARRA DEN (...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA, LEKUALDATZE-LEHIAKETA BATEAN PARTE HARTZEAREN BIDEZKOTASUNARI BURUZ.

1.- Etika Publikorako Batzordeko (EPB) Idazkaritzara bidalitako mezú elektroniko baten bitartez, (...)k, (...) Saiileko (...) Zuzendaritzaren titularrak, kontsulta bat egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordetako 27. eta 28. destino-osagarriko lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketan parte hartzeari buruz.

2.- Bidalitako mezuan adierazten du behin-behineko atxikipenean dagoen funtzionarioa dela eta, beraz, nahitaez parte hartu behar duela lekualdatze-lehiaketan, *"salbu eta Etika Publikorako Batzordeak erabakitzen badu hor parte-hartzea bateraezina dela"*.

3.- Mezuan gaineratzen duenez, *"EAEko sektore publikoko Zuzendaritzaren eginkizunak betetzearen inguruko gardentasuna sustatzeko eta kontrola sendotzeko asmoz (EEEn dago araututa), uste dut saihestu egin behar dudala EAEko Administrazio Orokorren ospeari, duintasunari edo itxura instituzionalari kalte egiten dion edozein ekintza edo omisio"*. Hori guztia dela eta, EPBri eskatzen dio *"esan dezala bateraezintasunik edo interes-gatazkarik dagoen kargu publiko hau betetzearen eta aipatutako lekualdatze-lehiaketan parte hartzearen artean"*.

4.- Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EJK aplikatzearen inguruan EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek zein beste edozein instantziak egindako kontsultak ebaztea.

5.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatutako Kodeak zehaztu egiten du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Bestalde, Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen (JKIGL) helburua da eginkizun publikoak dituztenek betebeharrak etikoa zorrotz betetzea, bai eta betebeharrak sozial jakin bat betetzea ere; izan ere, lege horren asmoa da gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa babestea, bai eta bizitza politikoan duen jardunaren gardentasuna zaintzea ere.

Lege horren II. kapituluak funtzio garrantzitsua du: kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik babestu eta bermatu nahi den zerbitzari publikoaren erueda zein den azaltzea edo ezagutaraztea: testu arauemailea ere bada, eta, beraz, karguak funtzio publikoan jarduten duenean zer betebeharrak dituen ezartzen du legearen indarrez.

Alde horretatik, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (lege horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketarako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredu-garritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tarterkian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko keza edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak egitea".

II.- Etika Publikorako Batzordeari aurkeztutako aztergaia

1.- Duela gutxi, EPB honek iritzia eman du kargu publikodunek Enplegu Eskaintza Publikoko prozesu batean parte hartzeko aukeraren inguruan egindako kontsultei buruz (1/2023 eta 8/2023 erabakiak).

Kontsulta hau ez da kargu publikodun batek Enplegu Eskaintza Publiko batean parte hartzeko aukerari buruzkoa, baizik eta jada funtzionario den kargu publikodun batek lekualdatze-lehiaketa batean parte hartzeko aukerari buruzkoa. Esan dugun bezala, oraingo gaia ez da goian aipatutako erabakietan jorrotutakoen berdina, baina orduko argudioetako batzuk baliagarriak izango zaizkigu kasu honi buruzko erabakia hartzeko.

2.- Interesdunak bere idazkian adierazi digunez, behin-behineko atxikipenean dagoen funtzionarioa da, eta, beraz, lehiaketan parte hartzea behartuta dago, "*salbu eta Etika Publikorako Batzordeak erabakitzen badu hor parte-hartzea bateraezina dela*".

3.- Batzorde honek zenbait erabakitan adierazi du bere lana etikaren alorrera mugatzen dela, eta, zehazki, EJKrekin borondatez bat egin duten kargu publikodunek eta parekatuek kode hori betetzen ote duten erabakitzera. Hala ere, horrez gain, adierazi izan du ordenamendu juridikoa

betetzea ez dela inondik ere gai hutsala, eta, beraz, kasu honetan beharrezkotzat jotzen dugu, lehenik eta behin, berriki onartu den Euskal Enplegu Publikoaren Legea aipatzea.

Hala, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, lehiaketetan parte hartzeari dagokionez, honako hau ezartzen du 98. artikulua 4. puntuan:

4. Funtzionario hauek har dezakete parte lanpostuak hornitzeko deialdietan: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta lege honetan jasotako eszedentzia-egoeretan daudenek, bai eta beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan dihardutenek edo funtzio gabetze ez-irmoa dutenek ere, baldin eta egoera horietan egon behar zuten denbora bete badute.

Bestetik, aipatutako artikulua 5. apartatuak honako hau ezartzen du:

5. Behin-behineko adskripzioa duten funtzionarioek, egoera horretan dirauten bitartean, nahitaez hartu beharko dute parte bere kidego, eskala edo funtzionario-taldeko lanpostuak hornitzeko lehiaketetan. Ez badute parte hartzen, ofizioz eta behin betiko esleituko zaie postu bat, deialdian ezarritako irizpideen arabera.

Kontsulta-egilea karrerako funtzionarioa da, gaur egun kargu publiko bat betetzen ari da, eta zerbitzu berezietako egoeran dago. Hain zuzen ere, 11/2022 Legeak lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko aukerari buruzko aurreikuspen zehatz bat jasotzen du.

Gainera, legeak aurreikuspen bat jasotzen du behin-behineko atxikipen-egoeran dauden pertsonen lehiaketetan parte hartzeko betebeharrari dagokionez; eta ez parte hartzeak kalte eragin liezaioke interesdunari, kasu horretan ofizioz esleituko litzatekeelako postu bat, behin betiko.

Beste alde batetik, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen arabera, karrerako funtzionarioek sustapen profesionalerako eskubidea izango dute, karrera profesionaltzat hartuta hobetzeko aukeren, mugitzeko aukeren eta aurrerapen profesionalerako itzaropenen multzoa, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera araututa.

Beraz, ondorioztatu behar dugu kontsulta egin duen pertsonak, behin-behineko atxikipenean dagoen funtzionario gisa, eskubidea duela administrazioak deitutako lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko, eta, planteatzen den kasu zehatzean, bere egoera dela eta, parte ez hartzeak kalte egin liezaiokeela bere karrera profesionalaren garapenari.

4.- Araudiaren ikuspegitik, zerbitzu berezietan dauden pertsonen lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko berariazko aurreikuspena dago, baina planteatzen dena da bateraezintasunik edo interes-gatazkarik egon ote daitekeen betetzen duen kargu publikoaren eta guztiz modu pribatuan egin nahi duen jardura baten artean, hau da, kargu publikodunek eta parekatuek parte hartu ote dezaketen administrazio publikoak deitutako lekualdatze-lehiaketa batean,

kontuan izanda kontsulta-egilea funtzionarioa dela administrazio publiko horretan eta gaur egun zerbitzu berezietan dagoela.

5.- Alde horretatik, Batzorde honek berriki hartu duen erabakia aipatu behar dugu. Hain zuzen ere, erabaki hartan, kargu publikodun bat Enplegu Eskaintza Publiko batera aurkezteko aukerari buruzko kontsulta planteatzen zen.

Erabaki hartan adierazi genuen moduan, bateraezintasuneko eta onestasuneko balioek eta printzipioek –eta azken horrekin erlazionaturik interes-gatazka egon daitekeenez– zeresan handia izan behar dute aztergai dugun kasua ebazteko garaian, ez baita karguari dagozkion zereginak betetzetik eratorritako zalantza etiko bat, karguarekin zuzenean lotuta dagoena, eta hauxe baita auzitan dagoena: interesdunak, karguan dagoen bitartean, ea egin dezakeen modu zeharo pribatuan gauzatuko lukeen jarduera bat.

6.- Kargu publiko bat betetzea eta kargu hori kokatuta dagoen administrazioak edo erakunde publikoak deitutako lekualdatze-lehiaketa batean parte hartzea bateragarri egiteko aukerari dagokionez, ez dute ezer ezartzen berariaz, ez Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (JKIGL), ez EJK-k. Hala ere, balio eta printzipioak eskaintzen dituzte, bai batak, bai besteak, eta jokabide etikorako jarraibide baliagarriak atera daitezke haietatik, aztertzen ari garen galderari erantzuteko.

7.- EJKn, "kudeaketari lotutako erantzukizunaren" printzipiotik abiatzen dira jarduera pribatuak garatzeko garaian kargu publikodunei dagozkien bateraezintasun-jarraibideak, eta horren eremuan kokatzen da 14.2 apartatuan jasotzen den "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren oinarrizko araua. Horren arabera, kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera. Legedi aplikagarriari lotu beharrak JKIGLren III. kapitulura eramaten gaitu, hain zuzen ere bertan ezartzen baita "kargu publikodunen bateraezintasun-araubidea".

8.- JKIGLren III. kapitulua adierazpen orokor batekin hasten da, hain zuzen ere honako hau adieraziz: "Kargu publikodunek [...] arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak". Baina 12.1 artikuluan urrats bat gehiago ematen da, eta funtsean ondorio logiko bat besterik ez den debeku hertsia bat gehitzen zaio oinarrizko arau horri: "ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta

ordezpen edo ahalordetze bidez ere, ezein postu, kargu, ordezkapen, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatueta, norberaren kontura edo inoren kontura izan" (12.1 art.).

Transkribatutako arauaren arabera, zenbait jarduera bateraezinak dira kargu publiko bat betetzearekin, eta nahikoa da jarduera horien zerrenda errepatatzea, egiaztatzeko jarduera profesionalak, merkataritzako jarduerak edo industria-jarduerak direla.

9.- Bai EJK-k eta bai JKIGLk diote kargu publikodunek "arduraldi osoa eta eskusiboa"ren printzipioa errespetatu behar dutela haien zereginak betetzerakoan, horixe baita Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakundeen eraginkortasuna bermatzeko bide egokiena; izan ere, aldi berean jarduera ekonomiko pribatu bat gauzatzeak –edozein jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera– zeregin publikoetan arreta galtzea eragin baitezake eta, horrela, kargudunaren inplikazioa gutxitu, errendimendua murriztu eta balio publikoa eratzeko egiten den ekarpenaren kalitatea gutxitu baitaiteke.

10.- Baina interesdunaren kasua desberdina da: bere asmoa ez da jarduera ekonomiko batean aritzea –jarduera profesional, merkataritzako jarduera edo industria-jarduera batean–, baizik eta denboran luzatuko ez den lekualdatze-lehiaketa batean parte hartzea, eta hori, lehen esan dugun bezala, oinarrizko eskubide bat egikaritzearen erakusgarri izango litzateke. JKIGLk berariaz baimentzen badie kargu publikodunei "ondare pertsonal edo familiarra administratzea" (14.1a artikulua), ez dirudi arrazoizkoa denik pentsatzea arrazoi gutxiago dagoela karrerako funtzionario gisa dagokien eskubidea baliatzeko baimena emateko; eta esan daiteke administrazio publikoen lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko eskubidea funtzionario guztien ondare pertsonalaren parte dela.

11.- Interes-gatazka gertatzeko aukerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da EJKren 11.2 artikulua arabera kasu honetan sortzen dela interes-gatazka: "kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean". Antzekoa adierazten da JKIGLren 9. artikuluan; hau da, interes-gatazka izango dela "lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran".

12.- Bi testuak irakurrita erraz ondoriozta daiteke biek diotela interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunek "erabakietan esku hartzen dutenean" (EJK) edo "parte hartu behar dutenean (...) erabakietan" (JKIGL), betiere honelako gaiekin lotuta: aldi berean interes orokorrak (betetzen den postuari dagozkionak) eta interes pribatuak (norberarenak, senideenak edo hirugarren pertsonenak) biltzen direnean. Gatazka sortzeko, beraz, ezinbestekoa da honako bi baldintza hauek gertatzea:

- a) Kargu publikodunak erabaki batean esku hartzea.
- b) Erabaki hori interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka gertatzen den gai bati buruzkoa izatea.

13.- Kasu honetan, interes-gatazka bat sortzeko behar den aurreneko baldintza falta da: kargu publikodunak zuzenean esku-hartzea aldi berean interes publiko eta pribatuak biltzen dituzten gaiekin zerikusia duten "erabakietan".

14.- Interesduna (...) Saileko kargu publikoduna da. Interesdunak prozesu jakin batean parte hartu nahi du, eta Funtzio Publikoko Sailburuordetza arduratuko da prozesu hori kudeatzeaz. Disoziazio organiko garbia dago kontsulta egin duen pertsonak betetzen duen kargu publikoaren eta parte hartu nahi lukeen lekualdatze-lehiaketa izapidetu eta ebazteko organoaren artean, eta horrek agerian jartzen du interesdunak ez daukala eragin eta ahalmenik deialdi publikoa kudeatu behar duten administrazio-organo eta pertsonengan.

15.- Horri gehitzen badiogu kontsultaren egileak betetzen duen kargu publikoak esleituta dituen eginkizunek ez dutela inolako lotura materialik lekualdatze-lehiaketaren deialdiarekin, kudeaketarekin eta ebazpenarekin lotutako administrazio-jarduketekin, badirudi argi dagoela, aztergai dugun kasuan, ez direla betetzen interes-gatazka bat egoteko behar diren baldintza faktikoak; izan ere, kargu publikodun gisa dituen eginkizunak betetzean, interesdunak ez du inoiz esku hartu beharko, ez zuzenean, ez zeharka, parte hartu nahi duen prozesua izapidetzeari eta ebazteari buruzko erabakietan.

16.- Aztergai dugun kasuan legezko bateraezintasunik edo interes-gatazkarik ez dagoela argituta –inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei ere ez zaiela kalterik egiten adierazteko bidea ere ematen digu horrek–, beste gauza bat aztertu behar dugu orain: ea integritateari dagozkion

jokaera eta portaerak urratzen diren kontsulta-egileak parte hartu nahi duen lehiaketa-prozesuan parte hartuta. JKIGLk hauxe hartzen du integritatez: "kargu publikodunek eta parekatutakoek atxikimendu sistemático eta iraunkorra izatea honako printzipio hauei: onestasanari, inpartzialtasunari, objektibotasunari eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetuari" (5.1 art.). EJK-k, berriz, honela definitzen du integritatea: "alde batetik, kargu publikodunek eta parekatutakoek honako hauei atxikimendu sistemático eta iraunkorra izatea da: onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei; bestetik, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzear" (4.1.1 puntua).

17.- EJKn, integritatearen balioa "favoritismo" susmorik eragin gabe jarduteko beharrari hertsiki lotuta agertzen da; gainera, kode horrek agintzen du ez dela erabili behar "postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat", eta ez dela eraginik izan behar norberaren agindupeko kargudun edo enplegatu publikoengan, interes publikotik aldenarazi eta "haietatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraientzat edo beste batzuentzat" (6.1, 6.2 eta 6.3 puntuak).

18.- Gure iritziz, aztergai dugun kasuan ez dago integritate-printzipioaren urraketarik ere, kontsulta eragin duen portaera ez delako kokatzen kargu publikodunek haien zereginak betetzearen esparruan, eta hain zuzen ere esparru horretan gerta daitezke favoritismo-susmoak edo kargu publikodunei legez emandako ahalmenak faltsutzea interes orokorretik aldendu eta norberaren edo hirugarren baten interes partikularren alde jokatzeko-. Interesdunak kontsultan aipatzen dituen hautaketa-prozesuetan parte hartzen badu, ez du goi-kargudun gisa parte hartuko, modu partikularrean baizik, karrerako funtzionario gisa dagokion eskubide bat baliatuz.

19.- Postu instituzionalaz edo karguaren ondoriozko pribilegioez baliatu eta zuzenean edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko arriskuari dagokionez, gogorarazi beharra dago kontsulta-egileak betetzen duen karguak ezin duela eragin parte hartu nahi duen prozesuaren garapenean, ez organikoki eta ez materialki. Integritatearen balioak, gainerakoan, kargu publikodunen jarduna bideratzen du beren eginkizunak betetzean, eta, kasu honetan, esan bezala, jarduketa partikular baten aurrean gaude, eskubide bat egikaritzuz gauzatu nahi dena.

20.- Esku artean daukagun kasuak. EJKren beste printzipio bati ere eragin diezaioke; eredugarritasunaren printzipioari, hain zuzen ere. Kodeak haxe dio eredugarritasunaz, 5.2.6 puntuan: "Kargu publikodun eta parekatuak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen badu, erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsonei ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez du ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, txikiena izanda ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko".

21.- EJK-k eredugarritasunaren printzipioaren esparruan agintzen eta debekatzen dituen jokabideak (15. puntua) kargu publikodunak bere funtzioak betetzerakoan duen portaerari ere badagokio, salbu eta dagokigun kasuan eraginik ez duen 5. puntuan xedatutakoa; alabaina, aurretik adierazi den moduan, hori ez da kontsulta honen xedea. Dena den, kargu publikoan jardun ahal izateko kontuan hartu behar diren portaera horiek zehazteko berariazko zenbait debeku daude, hain zuzen ere hauek:

- a) Kargu organikoak zein kudeaketa-karguak betetzea fundazio, elkarte nahiz bestelako erakundeetan, litekeena baldin bada haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea edota interesen arteko gatazka sor badaiteke.
- b) Zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Edozein hedabidetako eztabaida eta gogoeta-prozesuetan edo ekitaldi publikoetan parte hartzea gobernuaren berezko jarreratik aldentzen den jarrera agertuz, salbu eta garrantzirik gabeko gaiak edo iritzi pertsonalak badira eta, horrenbestez, gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela adierazten bada.
- d) Gobernuaren edo goragoko kargu publikodunaren baimenik gabe hedabideetan parte hartzea, eduki neutralei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik.
- e) Betetzen duten karguaren ondorioz liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ordainketak onartzea, baldin eta ekarpen horiek haien funtzioak betetzearekin lotuta badaude.

Ikus daitekeenez, EJK-k eredugarritasunaren printzipioaren esparruan berariaz debekatzen dituen jokabideen zerrendan ez dago lekualdatze-lehiaketetan parte hartzearena.

22.- Bikaintasun-balioari dagokionez, hauxe dio EJKren 4.1.2 apartatuak: "Bikaintasunaren balioak berekin dakar inplikatzera eta etengabeko hobekuntzarako ahalegina egitea, herritarren eskakizun guztiei erantzun ahal izateko erabaki publikoetan eta ematen diren zerbitzu publikoetan. Horretarako, eraginkortasunez jokatu behar da, eta saiatu behar da bat etor daitezen erakundean lan egiten duten pertsonen helburuak, baita teknologiei eta prozesuei dagokienez ere". EJK-k, 7. apartatuan, bikaintasuna dela-eta agintzen dituen portaera eta jokabideak kargua betetzearekin daude lotuta beste behin ere; hau da, kargua betetzeko garaian inplikazio handiagoa izateko, etengabeko ahalegina egiteko eta kalitatea hobetzeko daude pentsatuta.

23.- 7. apartatuko 5 puntuetan, kargu publikodunek erakutsi beharreko jarrera eta portaera positiboak ezartzen dira. Hain zuzen ere, honelakoak aipatzen dira: "bete beharko dituzte", "izan behar ditu xede nagusi", "izango dituzte helburu", "garatu beharko dituzte" eta "konpromisoa hartuko dute". Baina ez dira aipatzen zein diren bikaintasunarekin bateraezinak diren jarduerak. Eta, jakina, ez da inolaz ere esaten lekualdatze-lehiaketa batean parte hartzea bateraezina denik kargu publikodunei haien jardunean eskatzen zaien bikaintasunarekin.

24.- Hala ere, gerta liteke aztergai dugun kasu honetan balio hori kaltetuta geratzea, izan ere hala gertatuko baita kontsulta-egileak denboran luzatuko den ahalegina egin behar badu izena eman duen lehiaketan parte hartzeko prestakuntza jasotzeko eta ikasteko eta, horrez gain, horrek galarazi egiten badio bere kargu publikoa EJKren 7. apartatuak eskatzen dion bezala betetzea; hau da, "konpromiso handiz" eta "beti ahaleginduz (...) etengabe hobetzeko".

Ildo beretik, gogoan izan beharra dago besteak beste oinarrizko helburu hau dutela kargu publikodunentzat bateraezintasunen araubideak ezartzen dituzten jarraibide etikoek eta arau juridikoek: ahalegina egitea kargu publikodunek betetzen duten erantzukizun publikoarekin lotuta dauden zereginak osorik eta bestelako interesen interferentziarik gabe betetzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek aho batez erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

1.- Interesdunak ez duela Etika eta Jokabide Kodea urratzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordetako lekualdatze-lehiaketaren deialdian parte hartzeagatik.

2.- Disoziazio organiko garbia dagoela interesdunak betetzen duen kargu publikoaren eta parte hartu nahi duen prozesuak izapidetzeko eta ebazteko organoaren artean. Horrez gain, esleituta dituen zereginak ez dute inolako zerikusi materialik deialdiarekin lotutako administrazio-jardunekin (lekualdatze-lehiaketaren deialdia, kudeaketa eta ebazpena). Hori dena kontuan hartuta, interesduna ez da interes-gatazkan egongo bere idazkian aipatzen duen lekualdatze-lehiaketako prozesuan parte hartuta.

Olatz Garamendi Landa
Etika Publikorako Batzordeko burua
Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 25a.

